

80 pertsona baino gehiago surf egunean

2017/10/30

Larunbat honetan ospatu da Unibertsitate Surf Eguna.

EHU, UDeusto eta MUnibertsitate arten antolatu dugu, Gipuzkoako Surf Federazioaren laguntzarekin Unibertsitate Surf Egun hau. Bertan bi ekintza antolatu genituen, hastapen ikastaroak eta topaketa.

Ikastaroetan guztira 72 lagun aritu ziren, (MUnibertsitateko 15) goizeko 10:00tatik 17:30 arte eman ziren ordu t'erdiko ikastaroetan. Beraientzat olatu aproposak ziren, txikiak eta haize gabekoak.

Topaketaren kasuan, azkenean 10 lagun lehiatu ziren (MUnibertsitateko 5), olatu txikiegi eta beste txapelketaz betetako asteburuan. Hauek, gogor saiatu ziren, olatu txikiei etekina ateratzen saiatu nahian. Aipatzekoa bertan izan zen giro ona.

Hasi gara hurrengo ikasturteko eguna antolatzen, aurtengo giroa errepikatzeko asmoz.

